

# FUNTSEZKO JARDUERAK

PAM-ek etxez-etxe salduko du ogia. Hori dela eta, gure enpresako funtsezko jarduerak *EKOIZPENA*, *ARAZOAK KONPONTZEA* eta *SAREKO JARDUERAK* izango dira.

## EKOIZPENA:

Ekoizpena gure enpresako jarduera nagusia izango da, mota guztietako ogiaren produkzioan eta banaketan oinarritzen den manufaktura-enpresa bat baikara. Ezinbestekoa izango da enpresaren arrakasta eta biziraupenerako, jarduera hau egoki egitea. Horretarako, izugarritzko garrantzia izango du makina, teknologia, elikagai, lokal eta langile egokien erabilera.


## ARAZOAK KONPONTZEA:

Enpresa guztietan bezala, arazoak egongo dira enpresak aurrera egiten duen ahala. Baina arazo horiei aurre egiteko prest egon behar da momentu oro, baita hauek konpontzeko trebetasuna eta gaitasuna izan ere. Arazoak sahiestezinak dira. Konponbideak, aldiz, gure esku daude.

## SAREKO JARDUERAK:

Bezeroek PAM-i buruzko beharrezko informazio guztia eta, azken finean, enpresaren esentzia, diseinatu berriko web orri batean izango dute. Horregatik, ezinbestekoa izango da web orri honi beharrezko garrantzia ematea: diseinua, estiloa, hizkuntza aniztasuna, ulergarritasuna, deigarritasuna, erabilgarritasuna... kontuan hartu beharrekoak izango dira.

Horrez gain, ogiaren erosketa eza da fisikoki egingo. Hirian zehar ogiaren ekoizpenerako lokalak izango baditugu ere, honen erosketa interneten egingo da, online denda baten bidez. Beraz, ezinbestekoa izango da dendaren etengabeko kudeaketa, egin daitezkeen hobekuntzen bilaketa, erosteko erraztasuna eskaintzea, berritasunak... web orriarekin batera enpresaren arrakasta lortu eta mantentzeko eta gure ogiaren erosketa sustatzeko.



**PAM**

Aimar Samaniego - Iker Ormaetxea - Markel Murillo